



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko urtarrilaren 16a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu- neurri batzuk hartzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128 artikulua ezarritakoa betez, 2002ko azaroaren 14ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
**PERNANDO BARRENA ARZA ETA
FÉLIX PUYO REBOLLO**
JAUNEK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua gobernuari itzul dakion.

Zioak: Berriz ere UPNren gobernuak biltzar honetara, CDNrekin adostu ondoren, mozorrotutako lege proiektu bat ekarri du, Nafarroako gizarte-ari kolektibo batzuen tratamendu fiskala hobetzeko lege proiektu gisa aurkeztu nahi zaiona; hein batean hori bai lortzen da proiektu honekin, baina hobekuntza horiek neurri oso atzerakoi batzuk planteatu ahal izateko amua besterik ez dira.

Lege proiektu honetan, PFEZaren gehikortasuna gutxitzen da, errenta tarteak jaitsi eta eskalako gehieneko tasa gutxituz; bestalde, kapitalaren etekinei aplikatzen zaien murriztapena igotzen da eta ondare-gehikuntzari aplikatzen zaien zerga-tasa gutxitzen du. Azken batean, lege proiektu oldarkorra da sistema fiskal birbanatzailearen irizpide eta kontzeptuarekin; Nafarroako sistema fiskalak,

tamalez, erreformaz erreforma, gero eta atzerakoiagoa izatea du ezaugarri nagusi.

Neurri horiek guztiak ederki txertatzen dira UPNren gobernuak legegintzaldian zehar izandako estrategian, lehenbizi PSNrekin egindako akordioan eta gero NDErekin egindakoen bidez ahaleginak egin baititu errenta altuekin eta kapitaletik heldu diren etekinekin xamurragoa izan nahi duen politika fiskala egiteko. Politika fiskal horrek PFEZa denentzat lerro berekoa izatea baizik ez du bilatzen, zerga tasa errenta guztientzat homogeneizatzeko.

UPNren sistemak eta politika fiskalak dirubilleta indartu baino –gehiago duenak gehiago ordaintzeko irizpidearen pean– birbanaketan gero eta gutxiago oinarritzen den politika fiskala egiten du, hain zuzen ere ekitate printzipioari gutxien egokitzen zaiona.

Aldi berean, izaera antisozial argia duen erreforma fiskala da. Kalkulaturik dago 87 milioi euro inguru galduko direla, zeren eta erreforma honen ondorioz Nafarroak ez baitu diru kopuru handi bat bilduko, eta horri gehitu behar zaio aurreko erformen ondorioz bildu ez den dirua. Gure ustez, ordea, diru hori beharrezkoa da eskari eta beharri-
zan sozial garrantzitsuei erantzuna eman ahal izateko; esate baterako, oinarritzko errenta duina ezartzea edo 0-3 urteko zikloa doakoa izatea, beste batzuk ez aipatzearren.

Eta, aldi berean, iruzur fiskalaren aurka eragin-kortasunez borroka egiteko edo kapital etekinen tributazioa handitzeko Nafarroako sistema fiskalak behar duenaren aurkako norabidean egindako erreforma fiskala da.

Azken batean, UPNren gobernuak igorritako foru lege proiektua ikusirik, azaldutako guztiaren-gatik, proiektua erretiratu edo gobernuari itzuli behar zaiola uste dugu. Hori dela eta, osoko zuzenketa hau aurkeztu dugu, Zenbait zerga hein

batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua gobernuari itzul dakion.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 7.j) artikuluari testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko hirugarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“j) Erakunde publikoek emandako zenbatekoak, hirurogei urtetik gorakoak edo ezintasunak dituztenak etxean hartzeko edo egoitzetako nahiz eguneko zentroetako egonaldiak finantzatzeko.

Zioak: Foru lege proiektuaren oraingo erredakzioan, berariaz bereizten dira j) letrako bi salbuespen motak:

a) Erakunde publikoek emandako zenbatekoak, hirurogei urtetik gorakoak edo ezintasunak dituztenak etxean hartzeagatik.

b) Erakunde publikoek emandako zenbatekoak, % 65eko baino gehiagoko minusbaliotasuna edo hirurogeita bost urte baino gehiago dituzten pertsonentzako, haien egonaldia egoitzetan edo eguneko zentroetan ordaintzeko, baldin eta haien minusbaliatuaren edo hirurogei urtetiko gorako pertsonaren errentek lanbidearteko gutxieneko lansariaren bikoitza gainditzen ez badute.

Erredakzio berriarekin, erakunde publikoetatik jasotako zenbatekoen tratamendua berdintzen da, bai etxean hartzeari dagokionez, bai egoitzetako edo eguneko zentroetako egonaldiei dagokienez ere.

Bestalde, salbuespena etxean hartutakoak edo egoitzan sartutakoak hirurogei urte edo gehiago dituen kasu guztietara edo minusbaliatuaren minusbaliotasuna % 65era iristen ez den kasu guztietara zabaltzen da. Azken batean, salbuespenaren edukia zabaldu nahi da, kontuan harturik, gainera, honelako laguntza publikoak emateko baremoek lotura dutela minusbaliatuaren edo

hirurogeita bost urtetik gorakoaren errenta txikiarekin.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Idatz-zati bat gehitzen zaio foru lege proiektuko 1. artikuluari. Hona haren edukia:

“(idatz-zatiaren zenbakia). Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 10. artikuluko bigarren lerrokada kentzen da.”

Zioak: Estatuarekin 2002ko abenduaren 19an eginitako Kooperazio Batzarraren bilkuran lorturiko akordioaren markoan, 10. artikuluko bigarren lerrokada kentzen da, ondokoak subjektu pasiboa izatea aipatzen duena: atzerrian egoitza dutenak, Espainiako misio diplomatikoetako kideak, Espainiako kontsul bulegoetako kideak, Estatuaren kargu edo lanpostu ofizial baten titularrak nazioarteko erakundeen aurrean kreditatutako delegazio edo ordezkariak iragankorretako kide gisa, edo jarduneko funtzionarioak izateagatik, atzerrian diplomatikoen edo kontsulen arlokoa ez den kargu edo lanpostu ofiziala betetzen badute.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 15.2 artikuluko b) letrari beste testu bat ematen zaio, foru lege proiektuko 1. artikuluko hamaikagarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“b) Langile enplegatuen zerbitzu sozial eta kulturaletara zuzendutako ondasunen erabilera. Halakotzat hartuko dira, besteak beste, administrazio publiko eskudunak behar bezala homologatutako tokiak eta lokalak, enpresek edo enpleguemaileek jarritakoak beren langileen seme-alabek haur hezkuntzako lehen zikloa bertan egin dezaten, bai eta zerbitzu horren kontratazioa behar bezala baimendutako hirugarrenekin”.

Zioak: Bilatzen duguna da ondasunezko errentatzat ez hartzea enpresek beren langileen seme-alaben haur hezkuntzaren lehen zikloaren zerbitzua emateko jartzen dituzten lokalak.

4. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hamahirugarren puntuan, 17.2.a) artikuluan, "ehuneko 40" dioen lekuan "ehuneko 30" esan behar du.

Zioak: Zegoen bezala uztea eta ez mesede egitea errenta altuak dituztenei.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hamalauugarren puntuan, 25. artikuluko bigarren idatz-zatian, "ehuneko 40" dioen lekuan "ehuneko 30" esan behar du.

Zioak: Zegoen bezala uztea eta ez mesede egitea errenta altuak dituztenei.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 28. artikuluko 3. idatz-zatiari testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko hamabosgarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

"3. Zerga oinarrian ez dira sartuko Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Legeko 97. artikuluko a) letrak aipatzen dituen dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak."

Zioak: Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Legeko 97. artikulura bidaltzen du, blokean.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 30.1. artikuluko d) eta e) letrei testu berria ematea, foru lege proiektuko

1. artikuluko hamaseigarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

"d) Errenta geroratu, biziarteko edo aldi batekoak jasotzen direnean, "mortis causa" eskuratuak ez direnean, jaraunspen, legatu edo beste oinordetza-tituluren baten bidez..."

"e) Aldi baterako edo biziarteko errentak iraungitzen direnean –errentak "mortis causa", jaraunspen edo beste oinordetza-tituluren baten bidez eskuratuak ez badira–, errentaren iraungipenaren arrazoa erreskate eskubidea erabiltzea izan delarik, honelaxe aterako da kapital higigarriaren etekina..."

Zioak: "Mortis causa" hitzak sartzea.

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 32. artikuluko 3.B).b) idatz-zatiko d') letrako 2. idatz-zatiari testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko hemezortzigarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

"2. Etekin garbiak osorik zenbatuko dira, salbu eta positiboak izanik ondoko murrizketa hauetakoren bat aplikatzekoa denean:

a) Sortzeko epea bi urtetik gorakoa denean, edo erregelamendu bidez denboran modu erabat irregularrean lortutakotzat jotzen direnean, ehuneko 40ko murrizketa izanen dute.

Irabazi horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.

b) Bizi edo baliaezintasun aseguruaren kontratuetatik jasotakoaz ondorioztatutako etekinak, kapital gisa jaso direlarik, honela murriztuko dira:

– Ehuneko berrogei, primak etekinak lortu baino gutxienez bi urte lehenago ordaindu direnean, eta ezintasun prestazioetatik heldutakoentzako, hurrengo lerroaldean aurreikusitakoa aplikatu behar ez bazaie.

– Ehuneko 75, primak etekinak lortu baino gutxienez bost urte lehenago ordaindu direnean, eta baliaezintasun prestazioetatik heldutakoentzat, ehuneko 65 edo gehiagoko minusbaliotasuna denean.

Portzentaje hori bera aplikatuko zaio kapital moduan kontratu horietatik jasotakoaz ondorioztatutako etekin osoari, lehen prima ordaindu zenez geroztik zortzi urte baino gehiago igaro direlarik, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primek halako aldizkakotasun eta erregulartasun bat izan badute; betiere, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Hala eta guztiz ere erreskate partziala erabiltzetik jasotako zenbatekoen kasuan, letra honetan adierazitako murriztapenak urte natural bakoitzeko lehenbizikotik heldu diren etekinei aplikatuko zaizkie soilik. Murrizpen hori bateragarria izanen da kontratuaren amaiazpazetik heldu denarekin.

c) Erregelamenduaren arabera bide erraztuak ezartzen ahalko dira aurreko letran aipatutako murrizpenak aplikatzeko.

d) Idatz-zati honetan aurreikusitako murrizketak ezin zaizkie aplikatu foru lege honen 30. artikuluko 1. idatz-zatiko b), c) eta d) letretan eta 2. idatz-zatiko d) letran aipatutako prestazioei, errenta moduan jasotzen badira.

“d”) Hartzaileak zilegi izanen du soilik banandutako aktibo multzoen artetik hautatzea zeinetan inbertitu behar duen erakunde aseguratzaileak aseguruaren hornidura matematikoa, baina inoiz ez du zilegi izanen esku hartzea hornidura horiek zein aktibo jakinetan inbertitzen diren erabakitze-ko, multzo banandu bakoitzaren barrenean.

Kontratu mota horietan, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak, polizaren zehaztapenei jarraikiz, kontratuaren berariaz izendaturiko inbertsio kolektiboko erakundeetatik edo banandutako aktibo multzoetatik bat aukeratzen ahalko dute, aseguru-hartzaile edo aseguratu bakoitzerako banakako zehaztapenik egin gabe.

Idatz-zati honek aipatzen dituen baldintzak kontratuak indarrean iraun arteko guztian bete beharko dira.”

Zioak: 2. idatz-zatiko b) letrari dagokionez, baliaezintasun hitza sartzen da, baliaezintasun prestazioak ere arautzen direlako.

Ehuneko 75eko murriztapenaren kasuan, legez ezartzen da ehuneko hori aplikatu ahal izateko behar den minusbaliotasun gradua. Minusbaliotasuna ehuneko 65ekoa izanen da. Erreskate partzialetatik heldu diren zenbatekoak arautzen dira. Erreskate partzialetatik eta erreskate osotik edo aseguru-kontratuaren amaitzetik heldu diren errenten tratamendua koordinatzen da. “Unit linked” delakoei buruzko d’) letrari dagokionez, zehaztapen bat gehitu da: aseguru-hartzaileak edo aseguratuak inbertsio kolektiboko erakundee-

tatik edo banandutako aktibo multzoetatik bat aukeratzen ahalko du, eta horiek kontratuaren berariaz izendatu beharko dira. Berariazko izendatze hori funtsezko baldintza bat da, hain zuzen ere “unit linked” izeneko aseguruak ezaugarri estandarizatuak izan ditzaten.

9. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko III. tituluko II. kapitulu-ko 5. sekzioaren izenburuari beste testu bat ematen zaio, foru lege proiektuko 1. artikuluko hogeita berderatzigarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“5. sekzioa

Errenta egozpena, nazioarteko zerga gardentasuna eta inbertsio kolektiboko erakundeak”

Zioak: 5. sekzio honetako 52. artikuluan inbertsio kolektiboko erakundeak arautzen dira. Koherentea dirudi haiek ere aipatzea sekzioaren izenburuan.

10. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 47. artikuluarri testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko hogeita hamargarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“47. artikulua. Errenta egozpeneko araubideko entitateak.

Errenta egozpeneko araubideko entitateak izanen dira Foru Lege honen 11. artikuluan aipatutakoak eta, bereziki, atzerrian eratuak, baldin eta haien izaera juridikoa Espainiako legeen arabera eraturiko errenta egozpeneko araubideko entitateenaren berdina edo antzekoa bada.”

Zioak: Atzerrian eratuak errenta egozpeneko gisara hartzeko irizpidea da haien izaera juridikoa Espainiako legeen arabera eraturiko errenta egozpeneko araubideko entitateenaren berdina edo antzekoa izatea.

11. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 49. artikuluko 4. idatz-zatiari testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko hogeita hamargarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“4. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek eta establezimendu finko baten bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergapekoek, inbertsio kolektiboko erakunde bateko akzioak edo partaidetzak eskuratzen dituen errenta egozpeneko araubideko entitate bateko kideak badira, zerga oinarrian sartuko dute akzio edo partaidetza horietatik sortutako errenta kontabilizatuaren edo kontabilizatu beharreko errenten zenbatekoa. Halaber, zerga oinarri horretan sartuko dute hirugarrenei errenta egozpeneko araubideko entitatearen alde sortutako norberaren kapitalak lagatzeagatik lortutako kapital higigarriaren etekinen zenbatekoa.

Zioak: Ildo beretik Sozietateen gaineko Zerga aldatzea proposatzen duen zuzenketa batekin bat etortzea.

12. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 52. artikuluari testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko hogeita hamaikagarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“52. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo parte-hartzaileen tributazioa.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeak arautzen dituen abenduaren 26ko 46/1984 Legeak eraundutako inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaide diren subjektu pasiboek, hurrengo errentak egotziko dizkiete zerga-oinarriaren zati orokor edo bereziari, foru lege honetako arauetan xedatuarekin bat:

a) Akzio edo partaidetzen eskualdatzetik edo partaidetzen errenboltsotik ateratako ondare gehikuntzak edo urripenak. Balore homogeenak direnean, zergadunak eskualdatu edo errenboltsatuztat joko dira lehenago erosi zituenak.

Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzioen errenboltsotik edo eskualdatzetik ateratako zenbatekoa erabiltzen bada inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetza gehiago eskuratu edo izenpetzeko, erregelamenduen arabera ezarritako prozedurari jarraikiz, ez da bidezkoa izanen ondare gehikuntza edo urripena zenbatzea. Era berean, izenpetutako edo eskuratutako akzio edo partaidetza berriek mantenduko dute errenboltsatu edo eskualdatutako akzio edo partaidetzen balorea eta eskuratze-data honako kasutan:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen errenboltsotetan, baldin eta haiek inbertsio funtstzat jotzen badira.

b) Sozietate gisa eraturiko inbertsio kolektiboko erakundearen akzioen eskualdaketa, baldin eta honako bi baldintza hauek betetzen badira:

– Inbertsio kolektiboko erakundeak, zeinaren akzioak eskualdatzen baitira, 500 bazkide baino gehiago izatea.

– Eskualdaketa-egunaren aurreko hamabi hila-beteetako uneren batean subjektu pasiboak parte hartu ez izatea inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren ehuneko 5 baino gehiagotan.

Letra honetan, a) letran, bigarren lerrokan ezarritako gerorapen-araubidea ez da aplikatuko baldin eta, edozein bitarteko erabiliz, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen errenboltsotik edo eskualdaketa onoriozko zenbatekoa subjektu pasiboaren eskueran ipintzen bada.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako emaitzak. Horiek inoiz ez dute eskubiderik emanen foru lege honen 62. artikulua aipatzen duen dibidendu-ezarpen bikoitzagatik kenkaria izateko.

Hala ere, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50. artikulua erabaki duen karga-tasa orokorra ezar dakiekeen ondasun higigarrietako eta higiezinetak inbertsioko sozietateetara heldu diren dibidendu-ere aplikatzen ahal zaie aipatu kenkaria.

2. Artikulu honetako aurreko atalean aurreikusitako araubidea aplikatuko zaie Kontseiluak 1985eko abenduaren 20an emandako 85/611/CEE Zuzentarauak arautzen dituen inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideei. Dena den, erakunde horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: artikulu honetako 4. idatz-zatian aurreikusitakoak ez beste izatea, Europako Batasuneko kidea den herrialderen batean eratu eta bertan helbidea edukitzea, eta Balore Merka-

tuko Komisio Nazionalaren erregistro berezian sartuta egotea, Espainian egoitza duten entitateek merkaturatu ahal izateko.

Aurreko idatz-zatiko a) letrako bigarren lerrokadan xedatua aplikatzeko, honako betekizun hauek betetzea eskatuko da:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio eta partaidetzak eskuratu, izenpetu, eskualdatu eta errenboltsatuko dira Balore Merkatuko Komisio Nazionalan izena emana daukaten merkaturatze-entitateen bitartez.

b) Baldin eta inbertsio kolektiboko erakundea partitze edo azpi-funtsetan egituraturik badago, aurreko idatz-zatiko a) letrako b') letran aurreikusitako bazkide-kopurua eta gehieneko partaidetza-ehunekoa ulertuko da merkaturaturiko partitze edo azpi-funts bakoitzari buruzkoak direla.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide-kopuruaren eta haien kapitalean parte hartze-ko gehieneko ehunekoaren zehaztapena eginen da erregelamendu bidez ezarriko den prozedurari jarraikiz. Xede horretarako, bazkide-kopuruari, haien identitateari eta haien partaidetza-ehunekoari buruzko informazioa ez da egitate muntaduntzat hartuko.

Zioak: Honako aldaketa hauek egitea:

1.a Sozietate gisa eraturiko inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eskualdaketatik, honako bi baldintza hauek bete beharko dira:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeak, zeinaren akzioak eskualdatzen baitira, 500 bazkide baino gehiago izatea.

b) Eskualdaketa-egunaren aurreko hamabi hilabeteetako uneren batean subjektu pasiboak parte hartu ez izatea inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren ehuneko 5 baino gehiagotan.

2.a Artikulu honetan ezarritako gerorapen-araubidea ez da aplikatuko baldin eta, edozein bitarteko erabiliz, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen errenboltsu edo eskualdaketa ondozko zenbatekoa subjektu pasiboaren eskueran ipintzen bada.

Beraz, inbertsio-funts bateko partaidetzak errenboltsatzean edo inbertsio kolektiboko erakundeetako sozietateen akzioak eskualdatzean lorturiko kantitatea subjektu pasiboak eskueran ez duenean soilik aplikatuko da gerorapen-araubidea.

3.a Gerorapena aplikatzeko ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio eta partaidetzak eskuratu, izenpetu, eskualdatu eta errenboltsatuko dira Balore Merkatuko Komisio Nazionalan izena emana daukaten merkaturatze-entitateen bitartez.

b) Baldin eta inbertsio kolektiboko erakundea partitze edo azpi-funtsetan egituraturik badago, aurreko idatz-zatiko a) letrako b') letran aurreikusitako bazkide-kopurua eta gehieneko partaidetza-ehunekoa ulertuko da merkaturaturiko partitze edo azpi-funts bakoitzari buruzkoak direla.

Azken batean, gerorapen-araubidea aplikatu ahal izateko beharrezkoa da Balore Merkatuko Komisio Nazionalan izena emana daukaten merkaturatze-entitateek parte hartzea.

4.a Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide-kopuruaren eta haien kapitalean parte hartze-ko gehieneko ehunekoaren zehaztapena eginen da erregelamendu bidez ezarriko den prozedurari jarraikiz. Xede horretarako, bazkide-kopuruari, haien identitateari eta haien partaidetza-ehunekoari buruzko informazioa ez da egitate muntaduntzat hartuko.

13. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hogeita hamahirugarren puntuan, 55. artikuluan, hiru eta laugarren puntuak kentzea.

Zioak: Proposamenean seme-alaba bakoitze-ko murrizpenak handitu egiten dira, hirugarrenetik aurrerakoentzat, bai eta 65 eta 75 urte baino gehiagoko pertsonentzat ere. Alabaina, errentarik baxuenentzat seigarren seme edo alabak 216 euroko aurrezpena eragiten du, eta errenta altuentzat, berriz, 680 eurorainokoa. 75 urteko pertsona baten kasuan, aurrezpena 252 eta 792 euro bitartekoa izan daiteke, duen errentaren arabera. Horrelako neurriak gauzatu beharko lirarteke kuotako kenkarietan, guztientzat berberak izan daitezten.

14. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikuluko 33. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Hogeita hamahiru. 55. artikulua.

“55. artikulua. Likidazio oinarri orokorra

Zerga-oinarri orokorrari hurrengo murrizpenak bakarrik aplikatu ondoren ateratzen den kopurua izanen da likidazio oinarri orokorra:

1. Pentsio planei eta sistema alternatiboei, mutualitateei eta aseguratutako aurreikuspen planei egindako ekarpenengatik:

1.a Pentsio planetako partaideek egindako ekarpenak, sustatzaileek plan horietara edo maiztaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan dakartzan gizarte-aurreikuspen sistema alternatiboetara egindako ekarpenak barne, laneko etekin kontzeptupean egotzi bazaizkie.

2.a Gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan egiten diren ekarpenak eta kontribuzioak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

A) Baldintza subjektiboak:

a') Gizarte Segurantzako araubideren batean integraturik ez dauden profesionalek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratueta ordaindutako kopuruak badira, betiere Pentsio planak eta funtsak arautzeari buruzko ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko direnean, eta, foru lege honen 35. artikuluko 1. arauan jasotzen den eran, enpresa- edo lanbide-jardueren etekin garbia zehazteko gastu kenkari gisa jo ez direnean.

b') Gizarte Segurantzako edozein araubidetan integraturik dauden profesionalek edo enpresaburu indibidualek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratueta ordaindutako kopuruak badira, betiere Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko direnean.

c') Besteren konturako langileek edo bazkide langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratueta ordaindutako kopuruak, sustatzaileek haien alde laneko etekin kontzeptupean ordaindu eta egotzitakoak barne, betiere maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan xedaturikoaren arabera egin badira, aipatu bazkide langileentzako langabezi prestazioa sartuz.

B) Mutualisten eskubide bateratuak, pentsio planei dagozkienean, Pentsio planak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.8 artikuluan ezarritako kasuetan baino ezin izanen dira gauzatu.

Aipatu eskubide kontsolidatuak, bere osotasunean edo hein batean, bestelakoetan erabiliz gero, subjektu pasiboak bere aitorpenean sartu beharko ditu lan-etekin gisa jasotako kopuruak, bai eta zerga zela-eta sartu ez ziren zenbatekoei zegozkien berandutze interesak ere zerga oinarrian murrizpena jasan zuten ekarpenen ondorioz, erregelamenduaren arabera ezarri moduan.

3.a Aseguratutako aurreikuspen planetarako ordaindutako primak.

4.a Lehenengo idatz-zati honetan aurreikusitako gizarte aurreikuspeneko sistemetan urtean egindako gehieneko ekarpenen multzoak, eta kasua bada, sustatzaileek egotzitakoak barne, hurrengo 5. eta 6. puntuetan ezarritakoaren arabera zerga oinarria murrizteko eskubidea ematen ahal dutenek, ezin izanen dituzte gaudituz Pentsio plan eta funtsak arautzeari buruzko ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 5.3 artikuluan aurreikusitako zenbatekoak.

Aurreko lerroaldean ezarritako mugaren gainetik egindako ekarpen edo kontribuzioen soberakinek ez dute eskubiderik emanen zerga oinarria murrizteko, ez eta jasotako prestazioak gutxiagotzeko ere, bere osotasunean tributatu baitute.

5.a Aurreko puntuetan jasotzen diren murrizpenen kopuru gehieneko eta muga, ondoren finkatzen diren kopurueta txikiena izanen da:

a) Norberak ekitaldian zehar jasotako laneko etekin garbien, eta enpresa- edo lanbide-jardueretako batuketaren 100eko 25a.

Hala ere, berrogeita hamabi urtetik goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko portzenta-jea 100eko 40 izanen da.

b) 7.212,15 euro urtean.

Dena den, berrogeita hamabi urtetik goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko muga hori 601,01 euro gehiago handituko da partaide edo mutualistek berrogeita hamabi urtetik goiti duen urte bakoitzeko. Hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten partaide edo mutualistendako 15.025,30 euroko kopurua finkatu da.

Enpresaburuak berak gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan edo enplegu-pentsio planetan egiten dituen ekarpenak, baldin eta entitate horien sustatzaile eta partaide edo mutualista ere bada, muga horren beraren barrenean egonen dira.

c) Aurreko a) eta b) letretan ezarritako mugak banan banan aplikatuko zaizkio familia unitateko subjektu pasibo bakoitzari.

6.a Zerga oinarria murrizteko eskubidea ematen ahal duten ekarpenak aurreko puntuan ezarritako mugatik goitikoak badira, lehenengo idatz-zati honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemetan ekarpenak egin dituzten partaideek, mutualistek edo aseguratuek, hurrengo bost zergaldietan aukera izanen dute soberakin horri dagozkion kopuruak murrizteko.

7.a Aurreko mugen arabera egindako murrizpenak alde batera utzita, subjektu pasiboek, beren ezkontideak lan etekin garbirik edo enpresa- edo lanbide-jardueren ondoriozko etekinik jasotzen ez badu, edo urtean 8.414,17 euro baino gutxiago irabazten badu, zerga oinarri orokorretik murrizten ahalko dituzte pentsio planetan, gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan eta aseguratutako aurreikuspen planetan egindako ekarpenak, betiere ezkontidea partaide, mutualista edo titularrak izanik eta urteko 1.803,04 euroko gehiengo mugarekin. Ekarpene horiei ez zaie aplikatuko oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga.

2. Konpentsazio-pentsioak.

Kontzeptu horrengatik ezkontidearentzat ordaindutako kantitateak eta mantenerako urteko kopuruak, subjektu pasiboaren seme-alaben alde ezarritakoak salbu –bi kantitate horiek epailearen erabakiz ezarri beharko dira–; halaber, bikotekide egonkorarentzat ordaindutako kantitate legez gal-dagarriak.

3. Gutxiengo pertsonalarengatik.

Subjektu pasibo bakoitzeko 3.440 euro.

4. Artikulu honetan aipatzen diren murrizpenak hurrengo erregelen arabera eginen dira:

1.a Lehen eta bigarren idatz-zatietan ezarritakoak aplikatuko dira lehenbizi.

2.a Eraitza positiboa bada, 3. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Eraitza negatiboa bada, 3. idatz-zatian ezarritako murrizketa aplikatu litzaioke zerga-oinarriaren zati bereziari, negatibo bihurtu gabe ere.

Zioak: Lege bereko 62. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 55.4.1 artikuluko b) letrari beste testu bat ematen zaio, foru lege proiektuko 1. artikuluko hogeita hamahirugarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ezkongabe bakoitzeko, subjektu pasiboarekin bizi bada eta urteko lanbide arteko gutxieneko soldatetik goragoko urteko errentarik, salbuetsiak bazter utzirik, jasotzen ez badu:

–1.535 euro urtean, lehen eta bigarrenagatik.

–2.250 euro urtean hirugarrenagatik.

–3.000 euro urtean laugarrenagatik.

–3.500 euro urtean bosgarrenagatik.

–4.000 euro urtean seigarren eta hurrengoengatik.

Zenbateko horiek aplikatuko dira ondorengo ezkongabe bakoitzeko ere, edozein adinetakoa izanik, eskubidea badu c) letran aurreikusitako kenkariak jasotzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo edo haur adoptatu bakoitzeko, 1.200 euro urtean. Adopzio kasuetan murrizpen hori aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

Zioak: Kontuan izanik 1. puntu honexeko c) letrako hirugarren lerrokadan ezartzen dela ezen, “aurreko b) eta c) letratan xedatutakoa betetzeko, ondorengo sailkapen berean sartuko dira aplikagarri den legedian ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotutako pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaiderik ez izan arren”, ulertzen da tutoretzapekoak, familiaren hartuak (bai aldi baterako, bai modu iraunkorrean eta baita adopzio aurrekoak ere) eta umeordetzekoak aurreko edo ondorengo ahaide gisa hartuak izanen direla. Ez badira, ondorengo sailkapen berean sartuko dira. Bi kasu horietan, dagozkien murrizpenak eraginen dituzte. Dena den, baldin eta tutoretzapekoek, hartuek eta umeordetzekoek gainera hiru urte baino gutxiago badituzte, eskubidea izanen dute b) letrako 1.200 euro gehigarriak aplikatzeko. Adoptatuek, daukaten adina edozein dela ere, eskubide hori izanen dute Erregistro

Zibilean inskribitzen diren ekitaldian eta hurrengo bietan.

16. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikuluari 33 bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Hogeita hamahiru bis. 57. artikulua.

57. artikulua. Likidazio oinarri berezia.

Likidazio oinarri berezia kalkulatzeko, zerga-oinarriaren zati bereziari aplikatuko zaio 55. artikulua 4. idatz-zatiko 2. erregelari aipatzen den kenkaria, hala egokitzen bada.

Zioak: Lege bereko 55. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

17. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hogeita hamalagarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Likidazio oinarri orokorretarako eta zerga tipoetarako proposatzen den taula berriak foru ogasunaren dirubilketa nabarmen urritzea ekarriko du. Urritze horren ondoriozko onura fiskala batez ere errenta altuek izanen dute. Baliabide horiek beharrezkoak dira orain Nafarroaren gizar-te-kohesio eta garapen orokorrerako.

18. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hogeita hamalagarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den eskalaren ordean oraingoa ehuneko 10ean deflaktatua jartzea.

Zioak: Tarifa ez deflaktatzea zergak igotzeko modu bat da, eta gure taldeak ezin du horrelakorik onartu.

19. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

59.1 artikuluko hogeita hamalagarren puntuan, tiporik altuena aldatzen da; horrela, likidazio oinarri orokorrari kargatu beharreko tipoa ehuneko 44tik 47ra pasako da.

Zioak: Zegoen bezala uztea eta ez mesede egitea errenta altuak dituztenei.

20. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hogeita hamabosgarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gainbalio irregularren tributazioa ehuneko 15eko tipo bakarrera murriztearekin ez gaude ados. Bereziki negatiboa da errenta horien tributazioan progresibitatea kentzea.

21. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hogeita hamabosgarren puntuan, likidazio oinarri bereziari aplikatu beharreko karga-tasa aldatzen da, ehuneko 18koa izan dadin.

Zioak: Zegoen bezala uztea eta ez mesede egitea errenta altuak dituztenei.

22. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikuluko 36. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Hogeita hamasei. 62. artikulua beste modu batean idatziko da.

62. artikulua. Kuota-kenkariak

1. Kenkari familiarrak

a) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ezkongabe bakoitzagatik honako kenkari hauek aplikatuko dira:

Lehenbizikoagatik: 400 euro.

Bigarrenagatik: 490 euro

Hirugarrenagatik: 720 euro.

Laugarren eta bosgarrenagatik: 920 euro.

Seigarrenagatik eta hurrengoengatik, 1.000 euro.

Letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo edo adoptatu bakoitzeko, urtean 300 euroko kenkari osagarria aplikatuko da, aurrekoaren arabera aplikatzekoa den kenkari-az gain. Adopzio kasuetan, azken murrizpen hori aplikatuko da adopzioaren ebazpen judiziala edo administratiboa ematen den zergaldian eta hurrengo bietan.

Ez da kenkaririk izanen ondorengo egoeraren batean dauden ahaideengatik:

- Zergaren sortzapena baino lehen hogeita hamar urte beteta dituztenengatik, 1. idatz-zati honetako d) letran jasotzen den salbuespena salbu.

- Lanbide arteko oinarrizko soldata baino handiagoak diren urteko errentak, salbuetsiak barne, jasotzen dituztenak.

Ondorengo ahaideren bat maila bereko aurreko ahaide batzuekin bizi denean, kenkaria zati berdinean hainbanatuko da aurreko bakoitzaren aitortpenean.

Ahaidetasun maila desberdina duten aurreko ahaideekin bizi diren ondorengo ahaideen kasuan, maila hurbileneko aurreko ahaideek soilik izanen dute kenkaria izateko eskubidea. Hurbileneko ahaideen artean inork ez badu dagokion zergaldiaren garaian urteko lanbidearteko oinarrizko soldatetik gorako errentarik, salbuetsiak barne, kenkaria urrunagoko mailako ahaideek aplikatzeko aukera izanen dute.

Letra honetan ezarritakoa aplikagarria izanen zaie ere, beharkizun eta baldintza berdinetan, aplikagarri den legedian ezarritako terminoetan egindako tutoretza kasuei, bai umeordetze eta harrera kasuei ere.

b) Subjektu pasiboarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzeko, haren urteko errentak, salbuetsiak barne, kasuan kasuko zergaldian lanbide arteko gutxieneko lansaria gaitzen ez badu: 200 euro. Zenbateko hori 450 eurokoa izanen da,

aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko ahaide horien familia unitatearen urteko errentak, salbuetsiak barne, gutxieneko lansari horren halako bi baino gehiagokoak ez badira, kenkaria 200 eurokoa izanen da haietako bakoitzeko. Zenbateko hori 450 eurokoa izanen da, aurreko ahaideek hirurogeita hamabost urte edo gehiago badituzte.

Aurreko ahaideak subjektu pasibo bat baino gehiagorekin bizi baldin badira, kenkaria hainbana burutuko da bakoitzaren aitortpenean. Seme-alabek ez dute kenkaria burutzen ahalko beren gurasoek horretarako eskubidea baldin badute.

c) Hirurogeita bost urte edo gehiagoko subjektu pasibo bakoitzeko: 200 euro. Zenbateko hori 450 eurokoa izanen da, subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

d) Minusbaliatu den zergadun bakoitzeko aplikatuko da, lehen aipaturiko kenkari-az gain, jarraian adierazten den kenkaria, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraituz finkaturiko ezgaitasun-mailaren arabera:

Ezgaitasun-maila	Kenkariak (eurotan)
Ehuneko 33koa edo handiagoa, eta ehuneko 65 baino txikiagoa	490
Ehuneko 65ekoa edo handiagoa	1.740

Kenkari bera aplikatu beharko da ondorengo ahaide, aurreko ahaide, ezkontide edo alboko ahaide bakoitzeko, laugarren graduraino (hori ere barne), edozein adinetakoak direlarik, baldin eta haiek, zergadunaren menpean egonik eta kasuan kasuko zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza baino urteko errenta handiagorik ez izanik, minusbaliatuak badira.

Kenkari hori bateragarria izanen da aurrean adierazitakoaren arabera aplikatzekoak diren kenkariekin.

"Era berean, kenkari hau aplikatzea bidezko izanen da ezgaitasuna duen pertsonak zergadunarekin tutoretza bidezko lotura edo adingabeen babesaren arloan eskudun den entitate publikoan formalizaturiko ordainik gabeko umeordetze bidezko lotura duenean, eta aurreko lerrokadan errenta-mailari buruz adierazitakoa betetzen denean.

Kenkari honetarako eskubidea ematen duten pertsonak subjektu pasibo bat baino gehiagoren esku baldin badaude, kenkaria haien artean hainbanatuko da.

d) Subjektu pasiboak 614 euro murrizten ahalko ditu pertsona lagundutzat hartzen den senide bakoitzeko, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak horretarako ezarri dituen irizpide eta baremoen arabera, eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Lagundutako pertsonaren ezkontideak edo bikotekide egonkorak eginen du kenketa eta, halakorik egon ezean, graduaren arabera hurbilen duen senideak. Gradu bereko senide bat baino gehiago baldin badago, kenketa hainbanatu egiten da.

Kenketa egiteko eskubidea duen subjektu pasiboaren urteko errentek hamazortzi urtetik gorakoei bermatzen zaien lanbidearteko gutxieneko soldata gainditzen ez dutenean, graduaren hurrengo direnei pasatuko zaie kenketa, hala bada.

Letra honetan aurreikusi den kenketa ezin izanen da erabili lagundutako pertsonak aurreko letran esandako kenketarako eskubidea baldin badu.

Pertsona lagundutzat jotzea eta subjektu pasiboarekin bizitzea egiaztatu egin beharko dira Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak urtero emandako ziurtagiriarekin.

f) Subjektu pasiboak eskubidea izanen du Gizarte Segurantzari egindako kotizazioengatik zergaldian ordaindutako zenbatekoaren ehuneko 25eko kenkaria izateko, baldin eta kotizazio horiek egin badira 16 urtetik beherako ondorengo ahai-deak zaintzeko edo subjektu pasiboarentzat b), c), d) eta e) letretan jasotako kenkariak aplikatzeko eskubidea sortarazten duten pertsonak zaintzeko xedez familiaren etxean lan egiten duten pertsonekin formalizaturiko kontratuen ondorioz.

2. Kenkaria ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik.

a) 100eko 15, Espainiako lurraldean subjektu pasiboaren ohiko egoitza den edo izanen den etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik ekitaldian ordaindutako diru kopuruena. Kenkari horren oinarri gehienezkoa urteko 9.015,18 eurokoa izanen da.

Kenkaria aplikatzeko ondokoa eskatuko da:

1.a Etxebizitza izan dadila subjektu pasiboaren ohiko egoitza segidako hiru urteko epean. Hala ere, etxebizitzak izaera hori izan zuela ulertuko da, nahiz epe hori ez iragan, subjektu pasiboa hiltzen bada edo etxebizitza aldatzera nahitaez behartzen duten inguruabarrak gertatzen badira.

2.a Subjektu pasiboa etxebizitzan benetan bizitzea eta etengabea hamabi hilabetez, etxebi-

zitza erosi edo obrak bukatu ziren egunetik kontatzen hasita. Hala ere, subjektu pasiboak ohiko etxebizitza badu daukan kargu edo enpleguarengatik, epe hori kargu uztearen egunetik hasiko da kontatzen.

Kreditu entitateetan, erregelamendu bidez ezartzen diren formalizazio eta erabilera baldintzak betetzen dituzten kontuetan, uzten diren kopuruak izanen dira ohiko egoitza den edo izanen den etxebizitza erosi edo zaharberritzen erabiltzat jotzen direnak, baldin eta ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeko erabiltzen badira.

Ondorio horietarako, zaharberritzea ondokoa betetzen duena da:

a) Bizileku eta hiri ondarearen zaharberritzearen babespenari dagokionez legez eskatzen diren baldintzak bete beharko ditu, eta organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez frogatuko da hori.

b) Etxebizitzaren egitura, fatxada, estaldura edo antzekoak sendotuz eta tratatuz, berreraikitze xedea duen obra, baldin eta lanen kostu osoak ehuneko hogeita bostean gainditzen badu erosketaren prezioa, betiere erosketa hori lanak hasi aurreko bi urteetan egin bada, edo, bestela, lanen kostu osoak etxebizitzak zaharberritu baino lehen zeukan egiazko balioa ehuneko hogeita bostean gainditzen badu.

b) Kenkari honen oinarria etxebizitza erosi edo zaharberritzeko ordaindutako diru kopuruak osatuko dute, eroslearen kargu sortu diren gastuak barne. Inoren finantzaketarekin egin bada, horren ondoriozko amortizazioa, korrituak eta gainerako gastuak ere gehituko zaizkio oinarriari.

Hauxe kenduko zaio aurreko lerroaldean aipatzen den kenkari-oinarriari: aurretik zegoen ohiko etxebizitzarengatik kuotari kendu zaizkion kenkariari zegokien oinarriaren zenbatekoa, eta baita ohiko etxebizitza berriari inbertitzeagatik salbuetsitako ondare-gehikuntzaren zenbatekoa ere. Aipatu kenketa hori egiteko, subjektu pasiboak ezin izanen du ohiko etxebizitza berria erostea-gatik kuota-kenkaria aplikatu, baldin eta berri horretan ordaintzen diren zenbatekoek ez badituzte gainditzen arestian aipaturiko kopuruak.

c) Ohiko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharberritzeagatik egindako kenkariari dagozkien oinarrien zenbateko osoak ezin izanen du 90.151,82 euroko zenbatekoa gainditu, subjektu pasiboaren zergaldiak batera hartuz gero.

d) Idatz-zati honetan xedatutakoaren eragine-tarako, zergak aitorten bateratua eginez ordaindu diren zergaldietan ohiko etxebizitza erosi edo

zaharberitzeagatik egindako kenkariari dagozkien oinarriak, kenkarirako eskubidea sortu zuten subjektu pasiboek egindakotzat hartuko dira.

e) Kenkari honetarako, ezkontzaren araubide ekonomikoa konkista edo ganantzialak direlarik, joko da ezkontzak iraun duen artean pagatu diren kopuruak, idatz-zati honetako b) letrak aipatzen dituenak, konkista edo ganantzial sozietatearen funtsekin egin direla, eta kenkaria ezkontide bakoitzari dagokio bakoitzak sozietate horretan duen parte-hartzearen proportzioan."

f) Halaber, zilegi izango dute ohiko etxebizitzaren kenkaria aplikatzea etxebizitza horretan egokitze obrak edo instalazioak egin dituzten subjektu pasiboek, bai eta lan horiek eraikinaren parte komunetan egiten badira edo finka hori eta kalea lotzeko beharrezko pasabideetan, baldintza hauen pean:

a') Administrazio eskudunak zertifikatu behar du egokitze obrak edo instalazioak beharrezkoak direla etxearen irispidea eta zentzumen komunikazioa minusbaliatuek egoki eta duin erabili ahal izateraino moldatzeko; hori erregelamendu bidez arautuko da.

b') Kenkaria aplikatzeko eskubidea emanen dute subjektu pasiboaren beraren edo berarekin bizi diren ezkontide, bikotekide egonkor, aurreko edo ondorengo ahaideen minusbaliotasunaren ondorioz subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzan egin beharreko obrek eta egokitze-instalazioek".

c') Etxebizitzan, aurreko b') letran aipatzen direnetako edozein pertsonak jabe, maizter, maizter-orde, edo usufruktudun gisa bizi behar du.

Aurreko etxebizitza minusbaliotasunagatik desegokia den kasuetan, ulertuko da hori ezinbestez etxebizitzaz aldatzeko arrazoia dela.

g) Bi seme-alaba edo gehiagoko familia unitateen kasuan, a) letran adierazitako ehunekoa ehuneko 18koa izanen da. Aipaturiko ehunekoa ehuneko 30ekoa izanen da abenduaren 31rako familia ugarizat hartuak izateko baldintzak betetzen dituzten famili unitateen kasuan.

3. Etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria.

Ehuneko 20, eta gehienez ere 1.200 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru-kopuruena.

Aurreko lerrokadan zehazturiko ehunekoa eta muga igoko dira, hurrenez hurren, ehuneko 25era eta urteko 1.500 eurora, baldin eta zergadunak 35 urtetik beherakoak badira edo familia ugari bateko titular badira.

Zergadunaren adina zehazteko, zergaldiaren hasiera-egunean zegoen egoera hartuko da aintzat.

Baterako tributazioa hautatzen bada eta kenkari hori aplikatzeko eskubidea duten zenbait pertsona badaude, batzuk 35 urte baino gehiagoko adina dutenak eta beste batzuk hori baino gutxiagoko adina dutenak, haietako bakoitzak aplikatuko ditu dagozkion ehunekoa eta muga.

4. Kenkariak enpresa- edo lanbide-jardueretan.

Zerga honen subjektu pasiboari, enpresa- edo lanbide-jardueretan aritzen badira, sozietateen gaineko zergari buruzko arauetan kuotako kenkari gisa enpresa inbertsiorako ezarririk edo ezartzeko dauden bultzagarri eta pizgarriak aplikatzen ahalko zaizkie, kenkariaren ehunekoa eta mugak berdinak direlarik. Salbuespena abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 70. bis artikuluan ezarritako kenkaria izanen da.

Hala ere, pizgarri horiek, erregelamendu bidez hala ezartzen denean baizik ez zaizkie aplikatzen ahalko zerga-oinarrien zenbatespen objektiboaren araubidearen menpeko subjektu pasiboari, araubide horren ezaugarri eta beharkizun formalak kontuan harturik.

5. Dohaintzengatik kenkariak.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitakoak.

6. Lanarengatik kenkariak.

Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek 685 euro kentzen ahalko dituzte.

Langile aktibo gisa lan etekinak eskuratzen dituzten subjektu pasiboendako, % 33ko edo handiago eta % 65eko baino txikiagoko minusbaliotasuna frogatzen badute, aurreko lerrokadan aipatutako kenkaria 1.085 eurokoa izanen da. Kenkaria 3.000 eurokoa izanen da minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa dutenentzat.

Zenbaki honetan aurreikusitako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu 59. artikuluko 2. Idatz-zatiak aipatzen duen batez besteko karga tasa zergapeturiko lanaren etekin garbiei aplikatzearen emaitza.

7. Dibidenduengatik kenkaria.

Foru lege honetako 28. artikulua 1. idatz-zatiak aipatzen dituen etekinek, funts berekietan parte hartzeagatik eskuratutakoek, ondoko zenbatekoa izanen duen kenkari baterako eskubidea sortuko dute: aipatu artikuluan ezarritakoari jarrai-

tuz, lorturiko etekin osoa zerga-oinarrrian integraturiko zenbatekoari kendu eta ateratzen den emaitza.

Ezarpen bikoitzarengatiko kenkaria, babestutako eta bereziki babestutako kooperatiben itzulketei dagozkienak eta ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeaz araututakoak, foru lege horren 34. artikuluan ezarritakoari jarraituz eginen da.

Kuota likidoa aski ez delako aplikatu ez den kenkariaren zenbatekoa ondoko lau urteetan kendu ahal izanen da.

8. Interes kultureko ondasunengatiko kenkaria.

a) 100eko 15a, Interes Kultureko Ondasunen Erregistro Orokorrean jasota dauden ondasunak erosten egindako inbertsioena, betiere ondasuna titularraren ondarearen barnean baldin badago gutxienez hiru urtez eta eskualdatzea Interes Kultureko Ondasunen Erregistro Orokor horri jakinarazten baldin bazaio, gai honi buruzko berariazko arauetan xedatutakoari jarraituz.

b) 100eko 15a, aitzineko letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten ondasunen kontserbazio, konpontze, zaharberritze, hedapen eta erakuste gastuen zenbatekoarena, fiskalki kentzen ahal diren gastutzat jotzen ahal ez diren aldetik, kasuan kasu bidezko den etekin garbia zehaztekoan.

9. Sasoikako langileei aterpea emateko higiezinak erosi edo egokitzeko inbertsioengatiko pizgarri fiskala.

Pertsona fisikoen gaineko errentari buruzko zergako subjektu pasiboek eskubidea izanen dute kuota osoan sasoikako langileei eta haien ahaideei aterpea emateko higiezinak erosi edo egokitzeko zergaldian ordaindutako zenbatekoen 100eko 20ko kenkaria aplikatzeko. Pizgarri hori aplikatuko da baldin eta higiezina subjektu pasiboaren izenean badago nekazaritza eta abeltzaintzako aldi baterako langileei ostatu emateko etxeen sarean. Sare hori maiatzaren 22ko 192/2000 Foru Dekretuak arautzen du.

Subjektu pasiboek kenkaria aplikatzeko eskubidea izanen dute hain zuzen ere higiezina erosteko edo egokitzeko kopuruak ordaintzen dituzten zergaldian. Hala eta guztiz ere, kenkari horren aplikazioarekin lau zati berdin egin eta sortzapena gertatu zen zergaldian eta ondoko hiruetan zati ezberdinetan aplikatuko da. Kenkariaren aplikazioa, lau zati berdinetan, bidezkoa izanen da soilik aipatu higiezinetan sasoikako langileei aterpea ematen zaien zergaldietan.

Horretarako, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura Departamentuak urtero ziurtagiri bat emanen du, kreditatzeko higiezina subjektu pasiboaren izenean dagoela sarean, higiezinetan sasoikako langileei benetan aterpe eman zaiela eta, halakorik eman bada, higiezinetan egindako obrak direla-eta zenbateko dirulaguntza eman den.

Zioak: Kenkariak kuotan aplikatzearen sistemari kenkariak oinarrian aplikatzearen gaur egungoa baino bidezkoago deritzogu, antolamendu horrek amaieran duen eraginak ez duelako loturarik zergadunaren errenta-mailarekin. Kenkaria oinarriari aplikatzeko sisteman mesede egiten zaie errentarik altuenei.

23. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 62.1.g) artikuluari testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko hogeita hamaseigarren idatz-zatiak emanda-ko testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“g) Bi seme-alaba edo gehiagoko familia unitateen kasuan, a) letran adierazitako ehuneko 18koa izanen da. Aipaturiko ehuneko 30ekoa izanen da abenduaren 31rako familia ugaritzat hartuak izateko baldintzak betetzen dituzten familia unitateen kasuan.

Zioak: Argi uztea ezen, ehuneko 18 horretarako eskubidea izateko, aipaturiko “bi seme-alaba edo gehiago” horiek familia unitatean sartuta egon behar dutela.

24. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

1. artikuluko 37. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Hogeita hamazazpi. 64. artikuluari beste testu bat ematea.

64. artikulua. Kenkari batzuen muga.

1. 62. artikuluko 5. idatz-zatian aipatzen diren dohaintzengatiko kenkariaren oinarria, gehienez ere, subjektu pasiboaren likidazio-oinarriaren 100eko 20 izanen da.

2. Enpresa- edo lanbide-jardueren kenkarien mugak, 62. artikuluko 4. idazatiak aipatzen dituenak, 61. artikuluko aipatzen duen kuota likidoari aplikatuko zaizkio.

3. 62. artikuluko 8. idatz-zatiak aipatzen dituen interes kultureko ondasunetako kenkarien oinarria ezin izanen da subjektu pasiboaren likidazio oinarriaren ehuneko 20 baino gehiago izan.

Zioak: Aipaturiko idatz-zatia aurreko zuzenketa sartua dagoenez gero, kendu egin dugu, eta 64. artikulua aldatu dugu, 36. idatz-zatiari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

25. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hogeita hamazazpigarren idatz-zatiko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“...eta gehienez ere 601,01 euro urteko,...”
dioen lekuan esan behar du “...eta gehienez ere 901,01 euro urteko,...”.

Zioak: Etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria hobetzea.

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 62.2. artikuluari testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko hogeita hamazazpigarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“2. Etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria.

Ehuneko 15 eta gehienez ere 601,01 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

– Subjektu pasiboak zergaldian ez izatea 24.040 euro baino gehiagoko errentarik, salbuetsiak bazter utzita.

– Alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak subjektu pasiboaren zergaldiko errenten 100eko 10 baino gehiagokoak izatea, salbuetsiak bazter utzita.”

Zioak: Artikulu hori PFEZari buruzko Foru Legeko gainerakoekin koordinatzeko proposatzen da 2. idatz-zatiko hirugarren lerrokadan aldaketa hori egitea.

27. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

1. artikuluko 38. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Hogeita hemezortzi. 65. artikulua lehen lerrokadaren testu berria.

62. artikuluko 2 eta 8.a) idatz-zatiek aipatzen dituzten kenkariak aplikatzeko, subjektu pasiboak zergaldiaren bukaeran duen ondarearen balio frogatuak hasieran frogatutakoa baino handiagoa izan beharko du, gutxienez, egindako inbertsioen zenbatekoari dagokionez. Ez dira zenbatuko korrituak eta gainerako finantzaketa-gastuak.

Zioak: Aipaturiko idatz-zatia 72. artikuluari aurkezturiko zuzenketa sartua dagoenez gero, kendu egin dugu, eta 65. artikulua aldatu dugu, zuzenketa horrekin bat.

28. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hogeita hemezortzigarren idatz-zatiko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“685 euro” dioden tokian esan behar du “720 euro”.

Zioak: Laneko errenten tributazioa hobetzea.

29. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

1. artikuluko 39. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Hogeita hemeretzi. 66. artikuluari beste testu bat jartzea.

“66. artikulua. Kuota diferentziala.

Kuota diferentziala honako kopuru hauetan kuota likidoa gutxitzearen emaitza izanen da:

a) Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren kontzeptupean eginiko ordainketak, baldin eta urteko fakturazioa bi milioi euro baino handiagoa ez bada.

b) Hurrengo artikuluan aurreikusten den nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria.

c) Foru lege honetan eta erregelamenduzko garapen arauetan ezarritako atxikipeanak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak.

d) Foru lege honen 51. artikulua 8. idatz-zatiak aipatzen dituen kenkariak.

e) Subjektu pasiboak izaera berria hartzen duenean egoitzaz aldatzeagatik, foru lege honen 81. artikuluko 8. idatz-zatian aipatutako atxikipeanak eta konturako sarrerak, bai eta Egoitza atzerrian dutenen errentaren gaineko zerga dela-eta egoitzaz aldatu diren zergaldian ordaindutako kuotak.”

Zioak: Benetako presio fiskala gure ingurukoarekin parekatzea.

30. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. artikuluari testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko berrogeigarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“67. artikulua. Kenkaria, nazioarteko ezarpen bikoitzarengatik.

1. Subjektu pasiboaren errenten artean atzerrian erdietsi eta kargatutako etekin edo gehikuntzak daudenean, kuota likidoari ondoko zenbatekoetako txikiena kenduko zaio:

a) Zerga honen edo Egoitza atzerrian dutenen errentaren gaineko zergaren izaera bera edo antzekoa duen beste zerga bat kitatzeko atzerrian pagatutako zenbateko efektiboa etekin edo ondare gehikuntza horien gainean.

b) Likidazio oinarriaren zati bati batez besteko karga-tasa efektiboa aplikatzearen emaitza. Aipatu zati hori atzerrian kargatutako tasei dagokie eta bidezkoa zen barne araudia aplikatu zaio.

Zioak: Errenta egozpenen kontzeptua kendu egin da, ez baita beharrezkoa. Izan ere, nazioarteko gardentasun fiskalaren araubideak sistema berekia dauka nazioarteko ezarpen bikoitza deuseztatu edo zuzentzeko.

31. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Berrogeita batgarren puntua kentzea.

Zioak: Gai hori modu bidezkoago eta egokiagoan arautuko duen berariazko lege proiektu bat dago.

32. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

1. artikuluko 42. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Berrogeita bi. 75. artikuluari beste testu bat jarritzea.

75. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren erregela bereziak.

Baterako zerga-ordainketaren kasuetan, ondoko erregela bereziak aplikatuko dira:

1.a 62. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran ezarritako gehieneko oinarria urteko 21.035,42 eurokoa izanen da familia unitate osorako.

2.a 62. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran ezarritako oinarrien guztizko zenbatekoa 210.354,24 eurokoa izanen da familia unitate osorako.

3.a 62. artikulua 3. idatz-zatian aipatzen den errenten gehieneko zenbatekoa, 51.086 eurokoa izanen da familia unitate osoarentzat.”

4.a 64. artikuluko 1 eta 3. idatz-zatietan ezarritako gehieneko zenbatekoak familia unitateko kide guztien likidazio-oinarrien baturari aplikatuko zaizkio.

5.a 64. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako gehieneko zenbatekoa familia unitateko kide guztien kuoten baturari aplikatuko zaio.

6.a 71. artikuluko 1.a) eta 1.b) idatz-zatiek aipatzen dituzten familia unitateen kasuan, 55. artikuluko 4. idatz-zatiko 2. erregela aplikatzearen ondorioz ezkontideetako edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan duenean osoki aplikatu 3. idatz-zatian aipatzen den murrizketa, gerakina beste ezkontidearen gutxieneko pertsonalari erantsiko zaio.

7.a 71. artikuluko 1. idatz-zatiaren c) letrako familia unitateen kasuan, aitari edo amari dago-kion gutxiengo pertsonala (55. artikuluko 3. idatz-zatian ezarria) 2.150 eurotan handituko da. Gutxiengo hori ez da handituko aita eta ama elkarrekin bizi direnean.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

33. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

1. artikuluko 43. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Berrogeita hiru. 77.6. artikuluari beste testu bat jartzea.

77. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.

6. Arestiko 62. artikulua 1. Idatz-zatian aipatzen diren eta subjektu pasiboari dagozkion familia kenkariak gutxitu eginen dira zergaldia osatzen duten egun naturalen arabera, proportzionalki, salbu baterako zerga-ordainketaren kasuan; izan ere, horretan osorik zenbatuko dira.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren arabera ateratzen diren kenkarien zenbatekoak gutxitu eginen du, kontzeptu berberengatik beste subjektu pasibo batzuek egiten ahal dituzten kenkarien zenbatekoa.

Zioak: Aipaturiko idatz-zatia 75. artikuluari aurkezturiko zuzenketa sartua dagoenez gero, kendu egin dugu, eta 77.6. artikulua aldatu dugu, 62. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

34. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. foru lege proiektuko 1. artikuluko berrogeita bederatzigarren idatz-zatian honako aldaketa hauek egitea:

1.a Aipaturiko berrogeita bederatzigarren idatz-zatiaren izenburuari beste testu bat ematea, zeinak eduki hau izanen baitu:

“Berrogeita bederatzia. Bosgarren xedapen gehigarrian 1. idatz-zatia aldatzea eta 3. eta 4. idatz-zatiak eranstea.”

2.a Zuzenketa honetako 1. idatz-zatian ezarritakoarekin bat, Pertsona fisikoen errentaren gai-

neko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarriaren 1. idatz-zatiari testu berria ematea. Eduki hau izanen du:

“1. Inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzeko sozietateei eta helbidea atzerrian daukaten inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak Espainiako lurraldean merkaturatzen dituzten entitateei erregelamenduz ezarri ahalko zaie informazioa emateko betebeharra, erakunde horien akzio edo partaidetzekin eginiko eragiketei buruzkoa, baita akzio edo partaidetza horiek erosi zein saltzeko eragiketen emaitzei buruz eskueran daukatena ere.

3.a Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko bosgarren xedapen gehigarriko 3. idatz-zatiari testu berria ematea, aipaturiko berrogeita bederatzigarren idatz-zatiak emandako testuari jarraituz. Eduki hau izanen du:

“3. Horretaz gain, erregelamenduaren bidez ezartzen ahalko da informazioa emateko beharra ondokoen kargura:

a) Aseguru-etxeek aurkeztu beharko dute merkaturatzen dituzten aseguratutako aurreikuspen planei buruzkoa, foru lege honen 55.1.3.a artikuluan aipatzen direnei buruzkoa hain zuzen ere.

b) Gizarte Segurantzako erakundeek eta mutualitateek beren kide eta mutualistek sortutako kotizazio eta kuotei buruzkoa.

c) Erregistro Zibilak, jaiotza, adopzio eta heriotzei buruzko datuei dagokienez.

Zioak: 1. idatz-zatian sarturik daude, informazioa emateko betebeharra betetzera behartzei dagokienez, helbidea atzerrian daukaten inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak Espainiako lurraldean merkaturatzen dituzten erakundeak.

3. idatz-zatian ezartzen da Erregistro Zibilari ere jaiotza, adopzio eta heriotzei buruzko datuei dagokien informazioa ematea eskatu ahalko zaio-la.

35. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko hamabosgarren xedapen gehigarriko 2. idatz-zatiari testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko berro-

geita hamaikagarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“2. Xedapen gehigarri honetan erregulatutako araubidea honako kasuotan ere aplikatuko da: minusbaliatuen alde gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan egindako aportazioak eta haien prestazioak, aurreko ataleko baldintzak betetzen badituzte; aseguratutako aurreikuspen planetarako ordaindutako primak; eta foru lege honen 55. artikuluan eta aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen dituzten prestazioak. Kasu horretan, idatz-zati horretan ezarritako mugak pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei eta aseguratutako aurreikuspen planei egindako aportazioei ere ezarriko zaizkie.

Gizarte aurreikuspeneko mutualitate horien eskubide kontsolidatuak 40/1998 Legeko hamaizpigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoak ez diren kasuetan xedatzearen ondorioak izanen dira foru lege honetako 55. artikuluko 1. idatz-zatiko 2. puntuko B) letraren bigarren lerrokadan ezarritakoak.”

Zioak: Xedapen gehigarriko 2. idatz-zatiari bigarren lerrokada bat gehitzen zaio, Estatuko araudiak ezarritakoak ez diren kasuetan eskubide kontsolidatuak xedatzearen ondorioak arautzeko. Zergari buruzko foru legeko 55. artikuluan erabilerak esan nahi du ezen, aipatu eskubide kontsolidatuak, bere osotasunean edo hein batean, bestelakoetan xedatuz gero, subjektu pasiboak bere aitorpenean sartu beharko dituela lan-etekin gisa jasotako kopuruak, bai eta zerga zela-eta sartu ez ziren zenbatekoei zegozkien berandutze interesak ere zerga oinarrian murrizpena jasan zuten ekarpenen ondorioz, erregelamenduaren arabera ezarri moduan.

36. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko hamaseigarren xedapen gehigarriko b) eta d) letrei testu berria ematea, foru lege proiektuko 1. artikuluko berrogeita hamabigarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“b) Eskubide kontsolidatuak 40/1998 Legeko hogeita hirugarren xedapen gehigarriko 4. idatz-zatian aurreikusitakoak ez diren kasuetan xedatzearen ondorioak izanen dira foru lege honetako 55. artikuluko 1. idatz-zatiko 2. puntuko B) letraren bigarren lerrokadan ezarritakoak.”

“d) Aurreko letretan aurreikusitako araubide berezia alde batera utzita, kirolari profesionalek eta goi mailakoek zilegi izanen dute kirolari profesionalentzako gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpenak egitea, kirolari profesional gisa lan-bizitza bukatu badute ere, edo goi mailako kirolariaren izaera galdua izan arren.

Ekarpen horiengatik murrizketa egiten ahalko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarriaren zati orokorrean, ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan aurreikusitako inguruabarrak estaltzeko erabiltzen den zatian, betiere foru lege horren 55.1.2.a artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Aportazio horien murrizketaren gehieneko muga, osotara, foru lege horren 55.1.5.a artikuluan pentsio planetarako, gizarte aurreikuspeneko mutualitateetarako eta aseguratutako aurreikuspen planetarako ekarpenetarako ezarritakoa izanen da.

Zioak: Estatuko araudiak ezarritakoak ez diren kasuetan eskubide kontsolidatuak xedatzearen ondorioak b) letran arauturik daude. Zergaren foru legeko 55. artikuluan aipamena egiten da, minusbaliotasunak dituzten pertsonen aldeko gizarte aurreikuspeneko mutualitateen kasuko bera.

d) letran gehitzen dira aseguratutako aurreikuspen planetarako ekarpenak, kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualiterako ekarpenak murrizteko gehieneko muga zenbatzeko.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

37. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

3. artikuluari 3 bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Hiru bis.

24. artikuluan 1. zenbakiari g) letra gehitzea.

g) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren edo lizentzia fiskalaren kontzeptupean eginiko ordainketak, baldin eta urteko fakturazioa bi milioi euro baino handiagoa ez bada.

Zioak: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Legeko 66. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

38. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Idatz-zati bat gehitzen zaio foru lege proiektuko 3. artikuluari. Hona haren edukia:

“(idatz-zatiaren zenbakia). 58. artikulua.

58. artikulua. Hobaria, zerbitzu publiko batzuk emateagatik.

Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. Idatz-zatian edo 36. artikulua 1. zenbakiko a), b) eta c) letretan agertzen diren udal eskumeneko edo Foru Komunitateko Administrazioaren eskumeneko edozein zerbitzu publiko ematearen ondoriozko errentei dagokien kuota osoaren zatiak 100eko 99ko hobaria izanen du, enpresa mistoaren edo kapital osoa pribatua dutenen sistemari ustiatzen direnean izan ezik.

Zioak: Aldaketarik garrantzitsuena da “eta” hitzaren ordez “edo” jartzea, hain zuzen ere, “25. artikulua 2. zenbakian” hitzen ondoren; xedea da hobaria aplikatu ahal izatea Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legeko 25.2 artikuluan jasorik ez baina Estatuko lege horretako 36.1 artikuluko a), b) eta c) letretan ordea aipaturik dauden udal sozietateei.

39. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Idatz-zati bat gehitzen zaio foru lege proiektuko 3. artikuluari. Hona haren edukia:

“(idatz-zatiaren zenbakia). 70. bis artikuluko 1. zenbakia.

1. Baloreen kostubidezko eskualdaketa lortutako errenta positiboen zenbatekoaren % 20 kenduko da kuota osotik, errenta horiek karga tasa orokorraren mendeko zerga-oinarrian sartuta badaude, eta betiere eskualdaketa horien dirua artikulua honetan xedatu bezala berrinbertitzen bada, hemen ezarritako baldintzak beterik. Artikulua honetan aurreikusten ez den orotarako, 36. artikuluan xedatua aplikatuko da, 36.4 zenbakia izan ezik.

Kenketa hau % 10ekoa eta % 5ekoa izanen da, zerga-oinarrian sartutako errentak % 25eko eta % 20ko tasak dituenean, hurrenez hurren.

Zioak: Sozietateen gaineko zergaren fiskalitatea PFEZarenera egokitzea, balore jakin batzuen eskualdaketa lorturiko gainbalioen tributazioari dagokionez, berrinbertitzearen baldintzapean.

40. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 96. artikuluari testu berria ematea, foru lege proiektuko 3. artikuluko hamahirugarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“96. artikulua. Ondare sozietateen tributazioa.

Ondaren sozietateek zerga honengatik tributatu dute ondoko arau bereziei jarraikiz:

a) Zerga oinarria bi zatitan bereiziko da; orokorra eta berezia. Halaber, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legean xedatutakoaren arabera finkatuko da, 52. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) letra 2. lerroaldea bazter utzita, eta honako hau kontuan izanik:

a') Enpresa- edo lanbide-jardueren ondoriozko etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren arubide aruntaren arabera zehaztuko da.

b') Ondare gehikuntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, ez da aplikatuko Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

c') Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 25.2, 32.2 a) eta 34.6. artikuluetan ezarritako murrizketak ez dira aplikatuko, baldin eta ondare sozietateko bazkideren bat sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa bada.

b) Zerga oinarria bi zatitan bereiziko da; orokorra eta berezia, zerga oinarriaren zati orokorrari eta zati bereziari dagozkienak hurrenez hurren. Horrek ez du ezertan galaraziko aurreko zergaldietako likidazio oinarri negatiboen konpentsazioa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 56. artikuluan xedatutakoari jarraikiz egiten dena.

c) Likidazio oinarriaren zati orokorrerako karga tasa %40koa izanen da. Likidazio oinarriaren zati bereziarena, berriz, %15ekoa.

d) Kuota osoa honako kontu-sail hauek aplikatuz soilik murriztu ahalko da:

a') Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 62. artikuluko 3, 4 eta 7. idatz-zatietan jasotakoak, 64. artikulua ezarritako moduan.

b') Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 62. artikuluko 6. idatz-zatian eta 67. artikuluan jasotzen direnak.

c') Foru lege honen 73 eta 88. artikuluetan adierazitako konturako ordainketak.

Zioak: c') Errenta egozpeneko araubideko entitateetan eginiko aldatetekin bat, baldin eta ondare sozietateko bazkide guztiak PFEZaren subjektu pasibo badira, hark aplikatu ahalko ditu Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 25.2, 32.2 a) eta b) eta 34.6. artikuluetan ezarritako murrizketak. Artikulu horietan arautzen dira kapital higigarri eta higiezinaren eta enpresa- edo lanbide-jardueren etekinak. Alabaina, ondare sozietateko bazkideren bat sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa bada, ondare sozietate horrek ezin izanen ditu murrizketa horiek aplikatu.

Bestalde, argiago taxutzen da zein araubide izanen duten inbertsioen ondoriozko kenkariak, ezarpen bikoitza saihesteko kenkariak eta konturako ordainketak, eta horiei jarraitu beharko zaizkie ondare sozietateak.

Inbertsioen ondoriozko kenkariak, bai eta dibienduen ezarpen bikoitza nahiz nazioartekoak saihestekoak, PFEZaren arauak eraenduko dituzte.

Koturako ordainketak sozietateen gaineko zergaren arauak eraenduko dituzte.

41. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hamahirugarren puntuan, 96. artikuluan, c) letrak testu hau izanen du:

“c) Likidazio oinarriaren zati orokorrarentzat, karga tasa %47koa izanen da. Likidazio oinarria-

ren zati bereziaren tributazioa %15ekoa izanen da.

Zioak: Ondare sozietateak ez dira eratzten produkzio-xedeetarako, baizik eta, soil-soilik, pertsona baten ondarea eta haren PFEZa bereizteko asmoz. Sozietate horien kotizazio-tipoa ehuneko 40koa izatea bilatzen da, eta, aldi berean, PFEZaren gehienekoa ehuneko 44an finkatzen da. Kopuru handiekin jardutean, ehuneko 4ko etekina oso aipagarria da.

42. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 97. artikuluari testu berria ematea, foru lege proiektuko 3. artikuluko hamahirugarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“97. artikulua. Ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan duten ekitaldietan lorturiko etekinen banaketa.

Ondare sozietateen araubide berezia aplikatzekoa izan duten ekitaldietan lorturiko etekinen banaketak honako tratamendu hau izanen du, edozein delarik ere ondare sozietateek lorturiko etekinak banatzen dituen entitatea, banaketa egiten den unea eta entitateei une horretan aplikatzekoa den araubide fiskal berezia:

a) Hartzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa izanez gero, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 28. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) eta b) letratan aipatutako dibidenduak eta etekinak partaidetzak ez dira sartuko zerga horren zergaldiko zerga-oinarrian, baldin eta haiek banatzen dituen entitatea ondare sozietateen araubidepean zegoen zergaldietakoak badira dibidendu eta partaidetza horiek.

b) Hartzailea zerga horren subjektu pasiboa edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ordaintzaile eta establezimendu iraunkorduna bada, eskuratzen dituen etekinak betiere sartuko dira zerga oinarrian, eta dibidenduen ezarpen bikoitzagatik kenkarirako eskubidea emanen dute, foru lege honen 59. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatietan ezarritako moduan.

c) Hartzailea ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ordaintzaile eta establezimendu iraunkorrik gabekoa bada, lorturiko etekinekin jokatuko da

ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta zerga arauari buruzko abenduaren 9ko 41/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

Zioak: Ondare sozietateen araubide berezia aplikatzekoa izan duten ekitaldietan lorturiko etekinaren banaketaren tratamendua argiago geratzen da, edozein direlarik ere ondare sozietateek lorturiko etekinak banatzen dituen entitatea, banaketa egiten den unea eta entitateei banaketaren unean aplikatzekoa den araubide fiskal berezia.

43. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 98. artikuluari testu berria ematea, foru lege proiektuko 3. artikuluko hamahirugarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“98. artikulua. Ondare sozietateen araubidepean izan diren sozietateetan akzio edo partaidetzak eskualdatzea.

Ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan duten etekinetatik datozen erreserbak dituzten sozietateetan izandako partaidetzaren eskualdaketa onduko errentekin honela jokatu da, partaidetza horiek edozein entitatekoak izanik ere, eta eskualdaketa egiten den unea eta entitateei une horretan aplikatzekoa den araubide fiskal berezia edozein izanik ere:

a) Eskualdatzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa bada, ondarearen gehikuntza edo murrizpena kalkulatzeko Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 43.1.c) artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

b) Eskualdatzailea zerga horri loturiko entitatea edo egoitza Espainian izan gabe establezimendu finkoa dutenen errentaren gaineko zergapekoa bada, ez da inola ere kenkaririk aplikatuko, barne plusbalioaren ezarpen bikoitza saihestearren, foru lege honen 59. artikuluan ezarri bezala.

Errenta horiek zehazteko, zenbatu beharreko eskuraketa balioa zergaren sortzapen egunaren aurretik itxitako azken balantzearen ondoriozko teorikoa izanen da gutxienez, behin aktibo ez-ukituen kontabilitate balio garbia ondarearen gaineko zergaren eraginetarako izanen lukeen balioaz edo, txikiagoa izanez gero, merkatuan izanen lukeen balioaz ordezkatu ondoren.

Letra honetako lehen lerrokadan xedatutakoa aplikatuko da foru lege honen 59. artikuluko 3. zenbakiko kasuetan ere.

c) Eskualdatzailea egoitza Espainian izan ez eta establezimendu finkorik ez dutenen errentaren gaineko zergapekoa bada, Egoitza atzerrian dutenen errentaren gaineko zergari eta zerga arauari buruzko abenduaren 9ko 41/1998 Legean ezarritakoaren arabera tributatu du.

Zioak: Ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan duten etekinetatik datozen erreserbak dituzten sozietateetan izandako partaidetzaren eskualdaketa onduko errentekin nola jokatu den argiago uzten da, partaidetza horiek edozein entitatekoak izanik ere, eta eskualdaketa egiten den unea eta entitateei une horretan aplikatzekoa den araubide fiskal berezia edozein izanik ere.

44. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

3. artikuluari 13 bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Hamahiru bis.

103. artikuluari c) letra gehitzea.

c) Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren kontzeptupean eginiko ordainketak, baldin eta urteko fakturazioa bi milioi euro baino handiagoa ez bada.

Zioak: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Legeko 66. artikuluari eta sozietateen gaineko zergari buruzko legeko 24. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

45. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Idatz-zati bat gehitzen zaio foru lege proiektuko 3. artikuluari. Hona haren edukia:

“(idatz-zatiaren zenbakia). 110.1. artikuluari laugarren lerrokada gehitzea.

“Entitate partaidetua Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 10eko 93/22/CEE Zuzentarauak araututako balore-merkatu batean kotizatzen igarotzen bada, aurreko lerrokadetan aipaturiko sal-

buestearen aplikazioa honako honi baldintzatuta egonen da: sozietateak edo arrisku-kapitaleko funtsak enpresa partaidetuaren kapitalean duen partaidetza eskualdatzea gehienez ere bi urteko epean, enpresa partaidetua kotizaziorako onartzen den egunetik zenbatzen hasita.”

Zioak: Arrisku-kapitaleko sozietate eta funtsek lorturiko salbuespena, sustaturiko edo partaideturiko enpresen akzioak eta haien kapitaleko partaidetzak eskualdatzean lorturiko errentei dagokiena, hedatuko da partaideturiko sozietate burtsa-kotizazioko merkatu batean sartzen den kasuetara, baina, betiere, eskualdaketa egiten badira bi urteko epearen barruan, kotizaziorako onartzen den unetik aurrera zenbatzen hasita.

46. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Idatz-zati bat gehitzen zaio foru lege proiektuko 3. artikuluari. Hona haren edukia:

“(idatz-zatiaren zenbakia). 112. artikuluari 2. zenbakia gehitzea, eta artikuluko horren gaur egungo edukia 1. zenbakia izatera pasako da.

2. Artikulu honetan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaie Kontseiluak 1985eko abenduaren 20an emandako 85/611/CEE Zuzentarauak arautzen dituen inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideei. Dena den, erakunde horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: foru lege honetako 114. artikuluan aurreikusitakoak ez beste izatea, Europako Batasuneko kidea den herrialderen batean eratu eta bertan helbidea edukitzea, eta Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren erregistro berezian sartuta egotea, Espainian egoitza duten entitateek merkaturatu ahal izateko.

Zioak: PFEZari buruzko foru legearen araubidearekin bat, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatzen dituzten pertsona juridikoen tributazioa argitu egiten da, eta Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeak Europako Batasunekoekin parekatzen dira.

47. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Idatz-zati bat gehitzen zaio foru lege proiektuko 3. artikuluari. Hona haren edukia:

“(idatz-zatiaren zenbakia). 113. artikulua.

113. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzetako errenta kontabilizatuak.

Errenta kontabilizatuaren edo subjektu pasiboak kontabilizatu beharrekoak direnen zenbatekoa zerga oinarrian sartuko da, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen ondoriozkoak badira.

Zioak: Bat dator honako hau proposatzen duen zuzenketa batekin: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzea, xedea izanik sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaintzen duten zergadunek euren zerga oinarrian sartu behar izatea, baldin eta errenta-egozpeneko araubidepeko entitate bateko kide badira, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzetatik sortutako errenta kontabilizatuaren edo kontabilizatu beharrekoen zenbatekoa. Xedea da sozietateen gaineko zergan subjektu pasibo batek errenta horiek ez zenbatzearen kasua, nahiz eta horretara behartua zegoen, eta horren tributazioaren zalantza zotasuna aipatzen zen. Horregatik gehitu dira ”edo kontabilizatu beharrekoen” hitzak.

Beraz, zerga oinarrian sartu behar dira errenta kontabilizatuak eta kontabilizatu beharko zirenak, eta bi kasuetan tratamendu fiskala berdindu egiten da.

48. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 159.1. artikuluari testu berria ematea, foru lege proiektuko 3. artikuluko hogeigarren idatz-zatiak emandako testuaren arabera. Eduki hau izanen du:

“1. Hurrengo kontzeptuek osatuko dute establezimendu iraunkorrari egotz dakiokkeen errenta:

a) Aipatu establezimendu iraunkorrak garatzen dituen ustiapen ekonomikoen errendimenduek.

b) Hari atxikitako ondare-elementuen lagapenetik eratorritako errendimenduek.

c) Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare-elementuetatik heldu diren ondare-gehikuntza edo murrizketak.

Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare-elementutzat joko dira haren xede den jarduera burutzeari funtzionalki lotzen zaizkionak.

Erakunde baten funts berekietako parte hartzea ordezkatzeko duten aktiboak establezimendu finkoari lotutako ondare elementutzat joko dira soilik establezimendu hori Merkataritzako Erregistroan inskribatutako sukurtsala bada eta, horretaz gain, erregelamenduak ezarritako baldintzak betetzen badira.”

Zioak: Foru lege proiektuan sartutako aldaketa zen c) letraren amaieran beste lerrokada bat gehitzea, zeinak, c) letra ez ezik, 1. idatz-zati guztia ukitzen baitu. Hori dela-eta, 1. idatz-zati guztia aldatzen zen.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

49. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Foru lege proiektuko 5. artikulua lehenerroko lehen lerrokadari beste testu bat ematea. Hona edukia:

“2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testu bateginaren 11. artikuluari c) letra gehitzea, zeinak testu hau izanen baitu:

Zioak: Foru lege proiektuak orain duen testuak c) letra gehitzen dio oinordetzen, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergen arauak onesten dituen 1970eko apirilaren 19ko Foru Diputazioaren Erabakiaren 29. artikuluko 1. idatz-zatiari.

50. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Testu berria ematen zaio abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuak onetsitako oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testu bategineko 11. artikuluko c) letrako lehen lerrokadari (aurreko zuzenketarekin bat), lerrokada horri foru lege

proiektuko 5. artikululak emandako testuari jarraituz. Hona edukia:

“c) Hildako pertsonaren ezkontideek, bikote egonkorreko kideek, odolkidetasunaren linea zuzeneko edozein gradutako aurrekoek edo ondorengoek, edo adoptatzaileek, adoptatuek edo alboko ahaideek (hirugarren graduak barne) enpresa indibidual, lanbide negozio edo erakundeetako partaidetzak "mortis causa" eskuratzea, baldin eta, partaidetza horiei dagokienez, ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33. artikuluko 1. zenbakian b) letrako baldintzak betetzen badira. Halaber, salbuetsita egonen da haien gaineko gozamen-eskubideak oinordetza bidez eskuratzea.

Zioak: Testua hobetzea, honako hauek argitzekeo xedez:

1. Hildako pertsonaren odolkidetasun linea zuzeneko aurreko edo ondorengo ahaideak edozein gradutakoak izan ahalko direla.

2. Alboko ahaideei dagokienez, hirugarren gradurainokoak (horiek ere barne) onartuko direla.

3. Halaber, salbuespenak indar izanen du eskuratzen dutenak hildakoaren adoptatzaileak edo hark adoptatuak direnean.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

51. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 27. artikuluko 3. idatz-zatiari beste testu bat ematea, foru lege proiektuko 6. artikuluko bigarren idatz-zatiak emandako testuari jarraituz.

“3. Aitorpen-likidazioak, autolikidazioak edo informazio aitorpenak euskarri telematikoan aurkeztera behartuta dauden subjektu pasiboek kontabilitateko egoera-orrien iturburu diren datuak gordetzen dituzten programen eta fitxategien kopia gorde beharko dute, tributu bakoitzari buruzko araudiak ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

Zioak: Erredakzio egokiagoa. Subjektu pasiboek gorde beharko dituzten kopien edukia zehazkiago arautzen da: kontabilitateko egoera-orrien eta tributu-aitorpenen iturburu diren datuak gordezen dituzten programak eta fitxategiak.

Hori guztia ez da eragozpen izanen tributu bakoitzari buruzko araudiak datuak gordetzeari buruz ezarritako betebeharrei dagokienez.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

52. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Horrelako pribilegioak ez zaizkigu ego-kiak iruditzen.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

53. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“11. artikulua. pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako likidazio oinarri orokorra gaurko-tzea.

Urtero, Nafarroako Gobernuak Pertsona fisiko- en errentaren gaineko zergako 59.1 artikuluko liki- dazio oinarrien eta tipo indardunen taula gaurko- tuko du, horretarako behar den deflaktazioa eginez likidazio oinarrietan, Nafarroako Foru Komunitateko Kontsumorako Prezioen Indizearen urteroko aldakuntzaren ehunekoaren arabera.

Gaurkotze hori eginen da urte bakoitzeko lehen bi hilabeteetan behar den foru dekretua onetsiz eta argitaratuz.

Taula berria aplikatuko zaio aurreko urteko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldiari.

Zioak: Modu egonkor eta iraunkorrean bermatzea prezioen inflazioak ez duela eragin gisa izanen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan presio fiskala gehitzea.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

54. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenke- ta.

Aldaketa egitea a) letran: “alta emanda badau- de” hitzetatik aurrerakoa aldatzen da. Hona testu berria:

“Laguntza emanen zaie haietako bakoitzaren- gatik, euren errentaren proportzioan. Laguntza horren zenbatekoa erregelamenduz zehaztuko da.” Gainerakoak berdin segituko du.

Zioak: Proposaturiko laguntzak ez du aintzat hartzen emakumearen errenta. Bestalde, ez dira aintzat hartuko PFEZarekin zergapetzen diren diru-sarrerak, karga handiagoa ezarriko bailitzaie- ke errentarik altuenei.

55. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Foru lege proiektu- tari bosgarren xedapen gehigarri bat gehitzea. Hona testua:

“Bosgarrena. Jarduera ekonomikoen gaineko zergarengatik ordainduriko kuoten ondoriozko kenkaria.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik, sozietateen gaineko zergatik edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergatik kendu ahalko dira jar- duera ekonomikoen gaineko zergaren tributu-kuo- tak, honako hauek ordainduak:

a) pertsona fisikoek

b) sozietateen gaineko zergaren subjektu pasi- boek, tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege orokorreko 25. artikuluko entitateek eta sozietate zibilek, eta Nafarroan establezimendu iraunkor baten bidez diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, betiere euren negozioaren zenbateko garbia 1.000.000 euro baino txikiagoa baldin bada.

Hobari honen gehieneko zenbatekoa jarduera ekonomikoen gaineko zergaren gutxieneko kuota izanen da, 2003ko urtarrilaren 1ean indarra zeu-

kan indizearekin ponderatua. Indize hori aipatzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 154. artikuluan.

Kenkari hau aplikatzea bateraezina izanen da aipaturiko zergetan gastu kengarrizat kontuan hartzearekin.

Kenkari horren zenbatekoa konturako ordainketa gisa aintzat hartuko da, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 91.1 eta 2 artikuluan eta sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 86.1 eta 2 artikuluan xedatuaren ondorioetarako.

Negozio-zifraren zenbateko garbia eta kenkari hori aplikatzeko baldintza eta betekizunak errege-lamendu bidez finkatuko dira.”

Zioak: Gaur egun Gorte Nagusiak Toki Ogasunei buruzko abenduaren 28ko 39/1998 Legearen aldaketa bat izapidatzen ari dira, eta bertan ezartzen da zenbait subjektu pasibo salbuetsita egonen direla jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaintzetik.

Zuzenketa honen helburua da jarduera ekonomikoen gaineko zergarengatik ordainduriko kuotak kasuan kasuko PFEZaren edo sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa gisa tratatzea, araubide komunean salbuetsita dauden kasu beretan. Horrela, Foru Komunitateko udalek ez dute inolako tirabira finantzariorik izanen, Nafarroako zergadunen presio fiskala murriztu eginen da eta, tributuen kudeaketaren ikuspegitik, Foru Komunitatean egindako jarduera ekonomikoen gain kontrol-maila berari eutsiko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORREI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

56. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Foru lege proiektuko bigarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatiko a) letrari eta 2.d) idatz-zatiko d') letrari testu berria ematea. Hona edukia:

”a) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 95. artikulua arabera, 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen amaitutako azken zergaldian sozietate gardentzat hartua izatea, edo garai horretan izaera hori izateko baldintzak betetzea, eta kasu batean zein bes-

tean, desegitea erabakitzen den unera arte mantentzea.”

Id') Bazkideari adjudikaturiko elementuak, kreditu, diru edo hori ordezkatzeko duen ikurra ez direnak, joko da bazkideak eskuratu zituela sozietateak haiek eskuratu zituen egunean, eta ondare-irabazien zenbatekoa kalkulatzeko ezin izanen da aplikatu Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

Zioak: Alde batetik, lortu nahi da 2002an sozietate gardentzat hartuak izan diren guztiek aplikatu ahal izan dezaten entitate horiek desegiteko ezarriko araubide iragankor berezia.

Bestalde, sozietate gardenak desegitean aldatu egiten da bazkideak kreditu, diru edo hori ordezkatzeko duen ikurra ez diren elementuak, hari adjudikatuak, eskuratzearen egunaren irizpidea. Foru lege proiektuaren gaur egungo testuak ezartzen duenez, eskuratze-eguna bazkideari adjudikatzen zaiona izanen da; horrela, bada, bazkideak urtebete itxaron “behar” zuen ehuneko 15ean tributatzeko. Testu berriak ezartzen du eskuratze-eguna izanen dela sozietateak ondasuna eskuratzen duen eguna. Aldaketaren arrazoia honakoan datza: sozietate gardenak ez bada desegiten, ehuneko 15ean tributa dezake berak eskualdatzen badu ondasuna, ondare-sozietatearen araubide berriarekin, kontuan izanik azken horien zerga-oinarri bereziaren ehuneko 15eko tributazioa.

Azkenik, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarriko koefizienteak aplikatzearen ezintasuna argiro ezartzen da..

57. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Xedapen iragankor berri bat gehitzea, testu hau duena:

“Xedapen iragankor berria.

2003rako, Nafarroako Gobernuak foru lege honetako 11. artikulua edukia beteko du foru lege hau onesten denetik hilabeteko epean, gehienez ere.

Foru dekretu bidez argitaraturiko likidazio oinarrien eta zerga-tipoen taula 2002ko zergaldiari aplikatuko zaio.

Zioak: Bermatzea prezioen inflazioak ez duela eragin gisa izanen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan presio fiskala gehitzea.

**AZKEN XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

58. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Foru lege proiektuko azken xedapenetan bigarrenari beste testu bat ematea. Hona edukia:

"Bigarrena. Indar hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du, legeak aurreikusitako ondorioekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Aurreko lerroaldean hori ezarri bada ere:

a) Foru lege honetako 1. artikuluko berrogeita bosgarren zenbakia aplikatuko zaie 2002ko urtarrilaren 1ean hasten diren zergaldiei.

b) Foru lege honen lehen xedapen gehigarria eragingarri izanen da 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera".

Zioak: Foru legearen eraginak eta hark indarra hartzearen eguna bat etorraraztea.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

59. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenari kenketa egiteko zuzenketa.

Zioen azalpeneko honako lerrokada hau kentzea proposatzen da:

"Foru lege proiektuak zergaren tarifa berria prestatu du. Tarte kopurua zortzitik zazpira murriztu da; gehieneko tipoa, ehuneko 47tik ehuneko 44ra; eta gutxienekoa, ehuneko 15etik ehuneko 14ra. Likidazio-oinarri berezizko ehuneko 15eko tipoa ezartzen da."

Zioak: Aurkezturiko beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko.

60. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

"685 euro" dioen tokian esan behar du "720 euro".

Zioak: Aurkezturiko beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko.

61. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Foru lege proiektuko aitzinsolaseko hogeita bederatzigarren lerrokadari beste testu bat ematea. Hona edukia:

"Errenta egozpeneko araubideko entitateen definizioa ondokoan aldatu da funtsean: atzerrian eratu diren entitateendako, irizpide erabakigarria izanen da haien izaera juridikoa Espainiako legeei jarraituz eraturiko errenta-egozpeneko entitateena bera edo horren antzekoa izatea.

Zioak: Testu artikuludunarekin bat etortzea.

62. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Foru lege proiektuko aitzinsolaseko hogeita hamalagarren lerrokadari beste testu bat ematea. Hona edukia:

"b) Sozietate-forma daukaten inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen eskualdaketetan, baldin eta eskualdatzen diren akzioak 500 bazkide baino gehiagoko inbertsio kolektiboko erakunde batekoak badira, eta eskualdaketaren aurreko hamabi hilabeteetako uneren batean subjektu pasiboak ez badu parte hartu inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren ehuneko 5 baino gehiagotan."

Zioak: Testu artikuludunarekin bat etortzea.

63. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa.

Azkenurreko lerrokada berri bat gehitzea proposatzen da. Eduki hau izanen luke:

“Azkenik, 11. artikulua ezartzen du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako likidazio oinarri orokorren urteroko zuzenketa, prezioen inflazioak presio fiskalaren gehikuntza eragitea saihesteko.”

Zioak: Aurkezturiko beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

